# I ARABAKO FORU ALDUNDIA I
# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

***Foru Aginduak***

### HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**2.629**

**272/2005 FORU AGINDUA, apirilaren 11koa, Argomaizko SAUR-2 Sektoreko Plan Partzialaren espedientea behin betiko onartzeari buruzkoa. Espediente hori Burgeluko Udal Planeamenduaren Ordezko Arauei dagokie.**

I.- AURREKARIAK

Lehena.- Alkateak, 2004ko apirilaren 5ean emandako ebazpenaren bidez, SAUR-2 sektorearen plan partzialari hasierako onarpena ematea erabaki zuen, baita espedientea hamabost egunez jendaurrean jartzea ere. Honela eman zen horren berri: apirilaren 30eko Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratuz (48. zenbakia); 2004ko maiatzaren 9ko “El Periódico de Álava” egunkarian argitaratuz, eta udaletxeko iragarki-taulan jarriz.

Bigarrena.- Espedientea aztergai egon zen bitartean, ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalak, 2004ko abuztuaren 31ko bilkuran, espedienteari behin-behineko onarpena ematea erabaki zuen, eta Arabako Foru Aldundira bidaltzea, behin betiko onarpena eman ziezaioten. Espediente horri 2004ko irailaren 1ean eman zioten sarrera Foru Aldundian.

Hirugarrena.- Espedientearen eduki formala aztertu ondoren, osatu gabe zegoela antzeman zen; beraz, 2004ko irailaren 15ean, akatsak zuzentzeko eskatu zitzaion udalari. 2005eko apirilaren 1ean aurkeztu zuen udalak dokumentazio osagarria.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa.- Plan partzial honek era xehekatuan antolatzen du Argomaizko SAUR-2 sektorea. Sektore horrek dentsitate txikiko bizitegitarako lurzoru urbanizagarriaren sailkapena eta kalifikazioa du ordezko arauetan.

Bigarrena.- Jasotako dokumentazioa aztertu eta gero, honako ondorio hau ateratzen da: ordezko arauetan ezartzen diren baldintza formalak zein edukizkoak betetzen dituela, bai eta indarrean dagoen hirigintza arautegikoak ere.

Hirugarrena.- Dokumentu horrek hasierako onarpena jaso zuen jatorrizko plana eta eranskin osagarri bat dauzka, behin-behineko onarpena jaso ondoren espedienteari erantsitakoa; azken hori Aguraingo Kuadrillaren arkitekto aholkulariak (udal teknikari gisa) 2004ko martxoaren 26ko txostena eman ondoren egin zen.

Horrek esan nahi du ez dela egin beharrezkoa zen planaren testu bateratua, arkitekto horrek 2004ko abuztuaren 13an eskatu zuen moduan. Eskabide hori behin-behineko ebazpenean berretsi zen.

Horren ondorioz, honako plan partzial honi behin betiko onarpena eman dakioke, baina, argitaratzeko eta izapideak jarraitzeko, beharrezkoa da sustatzaileak Foru Aldundiari aurkeztea (Udalaren bitartez) testu bateratua. Testu horrek, beraz, udal erabakietan hasierako onarpenerako eta behin-behineko onarpenerako eskatzen ziren baldintzak jaso behar ditu.

Horregatik guztiagatik, eta aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Argomaizko SAUR-2 Sektorearen Plan Partzialaren espedientea behin betiko onartzea. Espedientea Burgeluko Planeamenduaren Ordezko Arauei dagokie, Domingo Ruiz de Azúa jaunak sustatu du eta udal horrek izapidetu du.

Bigarren.- Udalak hasierako onarpena eta behin-behineko onarpena emateko eskatutako baldintzak jasotzen dituen testu bateratua egin ondoren, Arabako Foru Aldundira bidaliko da espedientea, izapideak jarrai ditzan eta argitaratua izan dadin. Hilabete dago horretarako.

Hirugarren.- Ebazpen hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

***Órdenes Forales***

### DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**2.629**

**ORDEN FORAL 272/2005, de 11 de abril, de aprobación definitiva del expediente de Plan Parcial del Sector SAUR2 de Argómaniz, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Elburgo.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Mediante resolución de la Alcaldía de fecha 5 de abril de 2004, se acordó la aprobación inicial del Plan Parcial del sector SAUR2, así como el sometimiento del expediente a información pública por el plazo de quince días, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 48 de 30 de abril de 2004, en el Periódico de Álava de 9 de mayo de 2004, y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no hubo alegaciones por lo que el Ayuntamiento, en fecha 31 de agosto de 2004 procedió a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 1 de septiembre de 2004.

Tercero.- Tras haber analizado el contenido formal del expediente y habiéndolo encontrado incompleto, en fecha 15 de septiembre de 2004 se requirió del Ayuntamiento la subsanación de las deficiencias, cosa que fue cumplimentada mediante la entrega de la documentación complementaria el día 1 de abril de 2005.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El presente Plan ordena pormenorizadamente el sector SAUR2 de Argómaniz, clasificado y calificado por las Normas Subsidiarias como suelo apto para urbanizar residencial de baja densidad.

Segundo.- Analizado el documento técnico se ha comprobado que cumple los requisitos de contenido formal y material establecidos en las Normas Subsidiarias y en la legislación urbanística.

Tercero.- No obstante, el mencionado documento consta del Plan original que se sometió a la aprobación inicial y de un anexo complementario incorporado al expediente antes de la aprobación provisional, a raíz del informe de 26 de marzo de 2004 emitido por el arquitecto asesor de la Cuadrilla de Salvatierra, en calidad de técnico municipal.

Quiere esto decir que no se ha elaborado el preceptivo texto refundido del Plan, tal y como el mencionado arquitecto requirió en su posterior informe del 13 de agosto de 2004 que fue ratificado por el acuerdo de aprobación provisional.

Como consecuencia, el presente Plan Parcial puede ser aprobado definitivamente, pero para su publicación y diligenciación será preciso que el promotor, a través del Ayuntamiento, presente ante esta Diputación el texto refundido que recoja todas las condiciones impuestas en los acuerdos municipales de aprobación inicial y provisional.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Plan Parcial del Sector SAUR2 de Argómaniz, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Elburgo, promovido por don Domingo Ruiz de Azúa y tramitado por el Ayuntamiento del citado municipio.

Segundo.- Una vez elaborado, en el plazo de un mes, el texto refundido que recoja las condiciones impuestas por el Ayuntamiento en los acuerdos de aprobación inicial y provisional, se remitirá a esta Diputación Foral a los efectos de su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Laugarren.- Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoaren aurretik, berraztertze-errekurtsoa (administrazioen kasuan, errekerimendua), foru agindu hau eman duen organoari. Hilabete izango da horretarako, honako hau argitaratu edo honen berri jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko apirilaren 11.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

## Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**2.579**

**Diputatuen Kontseiluak 2005eko apirilaren 12ko bilkuran onartutako xedapenen laburpena.**

**- Foru Dekretua:**

LEHENDAKARITZA SAILA

- 31/2005 Foru Dekretua, apirilaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez 1116.001 lanpostuaren (Kultura Azpiegiturako atalburua) berariazko osagarria aldatzen da.

**- Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

- 300/2005 Erabakia, apirilaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetza hitzarmena izenpetzea onartzen da, lurralde historikoen, batez ere Arabako Lurralde Historikoaren, eta Eusko Jaurlaritzaren artean eskumenak nola banatzen diren ikertu, ebaluatu eta zenbatesteko.

- 301/2005 Erabakia, apirilaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez Arabako Foru Aldundiak bat egiten du Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioaren Batzorde Betearazleak onartutako “Gasteizko Gutunarekin”.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

- 302/2005 Erabakia, apirilaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez Arabako Foru Aldundiaren 2004ko diruzaintza gerakina onartzen da.

- 303/2005 Erabakia, apirilaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez 2004ko ekitaldiari dagozkion gastu eta diru-sarrera hondarrak onartzen dira.

- 304/2005 Erabakia, apirilaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez 2004rako luzatutako 2003ko aurrekontuko kredituak 2005erako luzatutako 2003ko aurrekontuari lotzen zaizkio.

- 305/2005 Erabakia, apirilaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez 2004ko ekitaldiko likidazio eragiketei dagozkien aurrekontu aldaketen ondorio diren zenbait kreditu gehitze onartzen dira.

- 306/2005 Erabakia, apirilaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez 2004ko ekitaldia ixteari dagozkion zenbait aurrekontu aldaketari buruzko espedienteak onartzen dira.

- 307/2005 Erabakia, apirilaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez Arabako Lurralde Historikoaren 2005erako luzatutako 2003ko aurrekontuko 36/2005 konpromiso-kreditua sortzeko foru arau proiektua onartzen da, baita proiektu hori Biltzar Nagusietara bidaltzea ere, arauz izapidetua izan dadin; era berean, aurrekontu horren kreditu-transferentziaren espedientea onartzen da. Zenbatekoa: 121.960,34 euro.

- 308/2005 Erabakia, apirilaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez Arabako Lurralde Historikoaren 2005erako luzatutako 2003ko aurrekontuko 70/2005 kreditu transferentziari buruzko espedientea onartzen da. Kredituaren zenbatekoa: 27.772,35 euro.

- 309/2005 Erabakia, apirilaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez Arabako Lurralde Historikoaren 2005erako luzatutako 2003ko aurrekontuko 71/2005 kreditu transferentziari buruzko espedientea onartzen da. Kredituaren zenbatekoa: 27.772,35 euro.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estime procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso, contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, a 11 de abril de 2005.– La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.

## Anuncios

### SECRETARÍA GENERAL

**2.579**

**Extracto de las disposiciones aprobadas por el Consejo de Diputados en sesión celebrada el 12 de abril de 2005.**

**- Decreto Foral:**

DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA

- Decreto Foral 31/2005, del Consejo de Diputados de 12 de abril, que modifica el complemento específico del puesto 1116.001, Jefe de Sección Infraestructura Cultural.

**- Acuerdos:**

DEPARTAMENTO DE DIPUTADO GENERAL

- Acuerdo 300/2005, del Consejo de Diputados de 12 de abril, que aprueba el Convenio de colaboración con la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea para la realización del trabajo de investigación, evaluación y cuantificación de la distribución competencial existente entre los Territorios Históricos y el Gobierno Vasco, con especial referencia al Territorio Histórico de Álava.

- Acuerdo 301/2005, del Consejo de Diputados de 12 de abril, que aprueba la adhesión y ratificación de la Diputación a la “Carta de Vitoria”, aprobada por la Comisión Ejecutiva de la Federación Española de Municipios y Provincias (FEMP).

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

- Acuerdo 302/2005, del Consejo de Diputados de 12 de abril, que aprueba el remanente de Tesorería de la Diputación Foral de Álava del ejercicio económico 2004.

- Acuerdo 303/2005, del Consejo de Diputados de 12 de abril, que aprueba los Residuos de Gastos e Ingresos correspondientes al ejercicio 2004.

- Acuerdo 304/2005, del Consejo de Diputados de 12 de abril, que aprueba la incorporación de créditos del presupuesto prorrogado 2003 para 2004 al presupuesto prorrogado 2003 para 2005.

- Acuerdo 305/2005, del Consejo de Diputados de 12 de abril, que aprueba diversos expedientes de habilitaciones de crédito derivados de las modificaciones presupuestarias correspondientes a las operaciones de liquidación del ejercicio 2004.

- Acuerdo 306/2005, del Consejo de Diputados de 12 de abril, que aprueba diversos expedientes de modificaciones presupuestarias correspondientes al cierre del ejercicio 2004.

- Acuerdo 307/2005, del Consejo de Diputados de 12 de abril, que aprueba el Proyecto de Norma Foral de creación de crédito de compromiso número 36/2005, del Presupuesto del Territorio Histórico de Álava del ejercicio 2003 prorrogado para el ejercicio 2005, su remisión a Juntas Generales para tramitación reglamentaria, y el expediente de transferencia de crédito de referido Presupuesto por importe de 121.960,34 euros.

- Acuerdo 308/2005, del Consejo de Diputados de 12 de abril, que aprueba el expediente de transferencia de crédito número 70/2005 del Presupuesto del Territorio Histórico de Álava del ejercicio 2003 prorrogado para el ejercicio 2005, por importe de 27.772,35 euros.

- Acuerdo 309/2005, del Consejo de Diputados de 12 de abril, que aprueba el expediente de transferencia de crédito número 71/2005 del Presupuesto del Territorio Histórico de Álava del ejercicio 2003 prorrogado para el ejercicio 2005, por importe de 27.772,35 euros.